

BIOLENTZIARIK EZA

Biolentziarik eza normalean pasibotasunarekin edo “ongi portatzearekin” erlazionatu ohi da, baina ideia hori ez dator bat hezitzaileok transmititu nahi dugunarekin. Gu Ekintza Ez Bortitzaz ari gara.

Biolentzia bezala, biolentziarik eza gizakiok bakarrik erabil eta bizi dezakegun zerbait da. Berez zentzua duen zerbait da, ez bakarrik “biolentzia” hitzaren aurkakoa.

Jarrera eta/edo portaera pertsonala edo kolektiboa da, eta gizabanakoaren harmonia hirukoitzaren bilaketan oinarriturik dago (norberarekin, besteekin eta naturarekin harmonian bizitzea). Hainbat balore koherenteki, egiaz eta espontaneoki bizitzea defendatzen du: berdintasunezko justizia, autonomia solidarioa, norberaren desarmatzea eta utopia zintzoa. Eta hainbat jarrera ere bai: lankidetzeta, elkarrizketa tolerantea, harreman enpatikoa, integrazio ekologikoa, desobedientzia kritikoa, aldarte umoretsua eta jendaurrean hitz egiteko ahalmena.

Horregatik, biolentziarik eza gatazkak konpontzeko modurik egokiena da, eta gizarte-aldaketarako estrategia bilakatu behar dugu. Prozesu hori funtsezko lau puntutan oinarritzen da: helburuen eta bitartekoen arteko koherentzia, injustiziarri aurre egitea, borrokan abangoardia ez izatearen printzipio pedagogikoa eta indarren arteko berdintasunezko harremana.